

Aritz Egea eta Yngvild Kaspersen irabazle Gorbeia Suzienen

10. orrialdea

Ondarearen jardunaldiak

Aurtengo urrietan, Ondarearen Europako Jardunaldiak, ondarearen izakera kolektiboan ipiniko dabe fokoa. Arratian, Areatzan, Igorren eta Zeanurin gaiaren inguruko jarduerak antolatu ditue hile osoan zehar; batez be ibilbide gidatuak. Zeanuriko Andra Mari eleiza erre zaneke mendeurrena be ekarriko dabe gogora. 12. orrialdea



Jente barria behar dabe Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzan

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

325

2019ko urri bigarrenaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Deiene Gurtubai Argazki Lehiaketako irabazle

Epaimahaikoen arabera, umeen pozak transmitiduten dau ondoen udaren esentzia. Plazera eta gozamenaren sasoia da uda. Horregaitik eta daukan konposizino bikainagaitik izan da saritua.

Antzeko erraziengaitik emon deusie bigarren saria Joseba Rodriguezen, *Marroixto lehiotik begire* argazkiari. Kasu honetan, konposizinoa bikaina izateaz gainera, ebokazino gaitasun handia eta egonezin puntu bat badakarrelako.

Horreezaz gainera, beste argazki eder asko jaso doguz BEGITUN. Guztira 118 izan dira. Batzuk hurrekoak eta beste batzuk urru-

nekoak. Naturea, mundua eta jentearen oparotasuna eta ugaritasuna erakutsi, eta begira egoteak dakarren plazera gogora ekarri izan deuskuenak.

Erdiko orrialdeetan, jasotako argazkien artean egindako aukeraketa bat dago: beste hamabi argazki eder, Sardinian, Hegoafrikan, Islandian, Nafarroan, Costa Rican, Katalunian, Andaluzian, Frantzian eta Austrian ateratakoak. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Ilgoran Andren Jabekuntza Eskoleak 16an ekingo deutso ikasturteari


Lehenengo ikastaroa Zeanurin izango da, Mazala Andra Taldeak minaren inguruan antolatutakoa. Gero, hainbat ikastaro eta tailer, betiko legez, Arratiako herri guztietan. Baina nobedadeak be badagoz. Morea eta Grisak, edadismoa ikuspuntu feministatik landuteko sortutako espazioak, andra zaharrentzako etxebizitza eta alkarbizitza aukerak eta bakardadearen gaineko hausnarketea bideratuko dau. Andra Migraduen Topagunea barriz, ez da egongo eta zerbitzu horren formatuaren gaineko hausnarketea egingo dabe. 7. orrialdea



ARRATIA

Gabonetako otzara agroekologikoak ipiniko ditu salgai Igitie alkarteak

Arratiko Zaporeak izeneko kanpaina abiatu dau Igitiek, Arratiako Baseritar Agroekologikoen alkarteak, Errota Fundazioa, Gorbeialde eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz. Ekimen bi dagoz kanpaina honetan. Alde batetik Arratiako Ekoizleen Katalogo bat aurkeztuko dabe; eta bestetik, Arratiako produktuak osotutako Gabonetako otzara bi ipiniko ditue salgai. Otzarok eskatuteko epea urri bigarrenaren 15etik zemendiaren 30era luzatuko da. 5. orrialdea



ARRATIA

Enpresa Ideien Hirugarren Lehiaketea antolatu dau AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Arratiako Enpresa Ideien Hirugarren Lehiaketarako deialdia egin dau, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia programeagaz lankidetzan. Lehiaketan, 18 eta 35 urte bitarteko gazteak hartu leikie parte, eta guztira, 7.000 euro bananduko dira saritan. Lehenengo saria 4.000 eurokoa izango da, bigarren saria 2.000 eurokoa, eta 1.000 euroko beste sari bat emongo jako Lehen Sektoreari lotutako idearik onenari.

Enpresearen egoitza edo ekoizpen guneak Arratian egon behar dau eta 2019. urtean daborduko sortu diran proiektuak be hartu leikie parte Enpresa Ideien Lehiaketan. 6. orrialdea

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

TIRA, TIROK/NA, TIRAZU (tiok/tiona, tizu)



Berba honeek lehenago gehiago erabilten ziran. 1) Berez, ez ondo ez txarto, hainbestean, nahikotzat, ontzat jo esan gura dau: "-Hi, zelan habi? -Tira" (tíre, ahoskatuta). 2) Baina beste testuinguru batzuetan be erabilten da; esate baterako, larritasuna arinduteko edo babes modura: "Tira, tira! Ez da hainbesterako!". 3) Tiok/tiona, tizu, tiezue... Etorri zaitez/ zaitezue... da esangurea (tíopa, ahoskatuta); adibidez: "Tiok ba! Ez hadi keju horrenbeste!". 4) Ganaduari aurrera joateko esaten jakon aginduzko berbea: "Tira!".

ERETXIA



RAFA UGALDE
Idazlea

Errealidade irudikatua edo manipulazinarako atea

Zorionez edo zoritarrez Sapiensak gara, Homo Sapiensak. Izan dira Neandertalak eta beste Homo batzuk be gure aurretik, eta geugaz batera be bai planetan. Oin dala miloe bi urte hasi eta ia oin dala 10.000 urtera arte hainbat Homo izan dira geugaz batera, baina geu izan gara aurrera egin dauan espezie bakarra. Eta antza danez, ez dogu aurrera egin besteak baino arma landuagoak egiten genduzalako, edo ehiztari trebeagoak ginalako, edo gure buruhazurrak kapazidade handiagoa eukalako, ez. Antza danez, gure arrakastearen giltzea berben bidez errealidade imajinatua edo irudikatua sortzeako daukagun gaitasuna izan da.

Gaitasun horren bidez mitoak sortu doguz, baita erlijinoak, gizarte-egiturak, ideologia politikoak eta giza-eskubideak be, besteak beste. Horren bidez lortzean dogu leku desbardinetan dagozan indibiduo ezezagunak alkarlanean ibiltea; hau da, planetako bazter desbardinetan bizi diran gizakiak lanean hasten dira norabide jakin baten eta alkarlanean, alkar ezetu ez arren. Holan hartu dabe indarra kristianismoak, islamismoak, eta budismoak, edo sozialismoak eta kapitalismoak. Ezezagun kopuru handiaren arteko alkarlanaren eraginez gizartearen jokabidea aldatu egiten da, arin aldatu be. Hori gitxi balitz, Sapiensak jarrera eta jokabidea aldatzen ditu beharizan aldatu ahala (edo interesak aldatu ahala esango neuke nik).

Azken hamarkadetan Sapiens batzuek beste errealidade irudika-

tu bat sortzean hasi dira, eta euskaldunok hur-hurretik ezetu izan dogu errealidade irudikatu hori; hain zuzen be, indarkeria bako indarkeria. Azken hiru mendeetan munduaren kontrola hartu dauan ordenaren interesen kontrako edozein jokabide indarkeria dala

dino errealidade irudikatu horrek. Munduaren kontrola hartu dauan ordena ezarteko, banaka batzuek indarkeria ikaragarria erabili izan dabe (AEBk, Espainiako Erresumak, Britainia Handiko Erresumak, Frantziako Errepublikak...), demokrazia berbea ahoan, beti be. Baina euren gustukoa ez dan jokabide baten kontra esku-ra daukiezan komunikabide eta tresna guztiak erabilten dabez errealidade irudikatu barri bat sortzeako. Holantxe bihurtu ziran terrorista Tatanka Yotanka (Sitting Bull) eta iparramerikako indigenak, edo Nelson Mandela eta Hegoafrikako erresistentzia; holantxe bihurtu ginduezan euskaldunok terrorista edo gitxienez terroristen lagun, eta euskaldunok erabili dogun indarkeria aitatu dodazan nazinoenaren aurrean umeen olgetea izan da.

Oin katalanai tokau jakie, eta antolatu eben bozketa pazifikoa, indarkeriatzat hartu gura dabe demokrazia berbea ahoan gaurko ordena ezarri dabenak. Horretarako, hasi dira errealidade irudikatu barri bat antolatzen, eta komunikabideetan zabaltzen. Eta gizartearen atal handi batek, Espainian atalik handienak seguruenik, sinistu egingo dau errealidade irudikatu barri hori, eta katalanak indarkeriaren erabiltzaile dirala sinistuko dabe. Eta munduan indarrean dagoan ordena egokitzen jotzen daben nazinoak be, demokrazia berbea beti ahoan daukien horreek, sinistu egingo dabe.

Azken baten Homo Sapiensak errealidade irudikatuak sortzeako dauan gaitasunagaz hainbat gauza irreal asmatu ditu, eta gauza erreal bat: manipulazioa.

Errealidade irudikatuaren tesia *Sapiens, de animales a Dioses* liburuan irakurri dot, baina nik tesi horri beste zeozer gaineratuko neuskio, liburuaren egi-leak aitatzen ez dauana; hain zuzen be, Sapiensaren gaitasuna errealidade irudikatuak sortzeako, benetako errealidadea, egia, distorsionatutako gaitasuna dala, eta horixe dala, tamalez, gure arrakastearen oinarria.

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Reggaeton

Gure institutuko garaian be reggaeton musika entzuten zan. Baina, egia esan, nahiko gauza puntuala zala esango neuke, parranda eta gaueko giroagaz lotua batez be. Atzen urteotan, ordea, musika genero hau pilo bat eta oso azkar zabaldu da jente gaztearen artean. Izan be, gaur egungo gaztetxo askori euren musika estilo gustukoena zein dan galdetu ezker, "reggaeton-a" erantzungo dabe zuzenean, eta abeslari faborito bat eskatzen bajakie, kasu askotan estilo bereko abeslariak aitatuکو ditue. Duda barik, reggaeton famatua eta doinu jantzarriak nagusi dira gazteen artean eta hortik kanpo dagoanari leku gitxi gelditu jako. Oso gitxi.

Gure sasoiaren egoera nahiko desbardina zan musikeari jagokonez. Gure erreferente edo idoloak leku askotatik etozan: rocka, punka, ska, folka, popa, heavya... Euskal Herriko talde asko entzu-

ten genduzan, baina kanpokoak be ugari. Orain, ostera, jatorri estilistiko hori askoz mugatuagoa da eta gaztetxoaren kultura musikala "estutu" egin dalakoan nago. Errazoiak asko izan daitezke: komunikabideen eragina, kulturaren globalizazioa, sare sozialak... edo, beste barik, garaia aldatu egin dirala.

Edozein modutan, musika entzutea jatea moduan ikusten dot zelanbaist. Norberak aukeratu dau bere burua zelan eta zegaz elikatu: arraina, babarrunak edo txuleta on bat jan daitezke. Edo bestela, nuggets, pizza eta patata frijituak egunero. Egia da gosea biak kenduten deusuela, baina ez da bardina izango. Lehen esan dodan moduan, gure nerabezaro menuan Queen, Alaitz eta Maider, Kortatu edo El Canto del Loco moduko plater desbardinak probau ahal ziran. Gaur egun, aldiz, gazte askoren menuaren oinarrian Daddy Yankee, Maluma edo C. Tangana moduko elikagai prefabrikauak baino ez dagoz: erritmo jantzarri ia bardinbardinak, ganora gitxiko letrak eta mezu sexista ugari. Horreek danak musika-gosea kentzeako balioko dabe, bai, baina epe luzera digestinoa seguru ez dala bardina izango. Ez urdailean, ez buruan.

ZERTZEAN



IBON IZA

1

Une urdurietan abaro goxoan zeozer izan gurean hain mundu osoan liluratu euskuzun errimen altzoan plazara urtetako herrian, auzoan arbola egin ginen gu zure basoan.

2

Begiak itxi arren beti erne-erne zure eskolak ziren gure arnagune Bizkaiko kulturgintzan ginen zure ume egin zenduan beharrak loratu dau, ene!! Zure alaba gara eta zure seme!!

3

Diktaduran kantari zu eta Azpillaga hain zan mezu ederra bion begirada gu zure iturriko ur gorria gara hizkuntza gura dogu mundura atara zure amets handia orain geurea da.

4

Euskerea erdian euskerea gara zabaldu gura dogu gaur hemendik hara kantari joango gara alboko eskolara laranja laranja zan zuk eukazun "Sava" gure ametsa ere halakoxea da!!

5

Zulango maisu gutxi izan da munduan helburua argia daukana buruan "Hiztegi (h)errimatua" daroagu barruan Lopa zugaz batera bazkaltzeko orduan gure eginkizuna ikasi genduan.

6

Bidaian ez zan inoz txisturik faltako "Ford Orion" zaharreen ez genbiltzan txarto berbea zan lanabes pozik olgetako miresmen ohoreak hartu zeuretzako geure zati handi bat zeurea dalako.

BEGI TXINDORRA

Inbiu 2019

Urri lehenengoaren hasieratik Igorreko kaleak Arratiako esakerakaz bete dira: *Ekine baragarrie da, Ondo eginen pague, ate ostean palue, Han be txakurrek ortozik...* Zergaitik? Arrazoiak erraza da: Euskara Batzordeak beste behin jente pilo bat mobidu dau helburu jakin batez, hau da, euskerea eta euskerearen balioa eta transmisioa bultzatzea. Horregaitik, zirrara izetu gura izan dau jentearengan eta jolas bat prestatu dau etxe guztietara buzoneau diran ariketakaz. Horrezaz gain, horma-irudiak prestatu dabez Kultur Etxeko horma baten eta eskolako beste baten. Leloa argia eta zuzena: *Euskaraz gara!* Gainera, jubilatuen laguntzeagaz 230 persona baino gehiago batu ziran bazkaiten eta zer esanik ez, Jokaldikoakaz eta Ein GO taldeagaz giroa animau zan atoan. Osterantzean, argazkia begiratu eta zuok esan!

Igorreko Euskera Batzordea



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22
ETROITZ
Agorren gaurik osatutakoa

LEMOA

Lemoako II. Bardintasun Planerako ekarpenak egin daitezke urrian zehar



Idoia Legarreta.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 19an, Lemoako II. Bardintasun Planaren proposamen aurkezpena egin eban lemoaztarren aurrean Idoia Legarreta bardintasun teknikari eta proposamenaren egileak. Plana diseinetako prozesua bagilean hasi zan, garagarrean herri-tarrakaz lan saio bi egin ondoren, zirriborroa egin eta bialdu egin deutse teknikariak. Oin, urrian, jentearen ekarpenak jasoko ditu.

Ekarpenok lan saioetan (hilaren 3, 17 eta 31n) egin daitezke edo idoialegarreta.s@gmail.com helbidera idatziz hile osoan zehar. Zemendian, jasotako ekarpenakaz, Plan proposamena Emakundera bialtzea, eta, urtea amaitu baino lehen, Udaltzaban onartzea aurreikusten dau Legarretak.

Aurreko Plana 2014an egin zan, eta plan horretako zer egin dan eta zer ez ikusita, abiatu da II. Plana. Lehenengo Bardintasun Planak jasoten ebazan gauza asko egin barik geratu dira. "Planteau zanetik egin danera, salto handia dago" esan eban Legarretak II. Planaren proposamen aurkezpenean. Izan be, bere esanetan, "gakoa da persona bat eukitea honetara dedikauta" eta Lemoan, sano lanaldi txikia izan daben hiru teknikari pasau dira plana ezartzeko lanetan.

Bigarren plan honek kudeaketa egiturak indartzea proposatzen dau: lanordu gehiago dituan Udal Bardintasun Zerbitzu indartsuago bat, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzua-

gazko koordinazio egiturak eta Bardintasunerako herriarren gunea, hain zuzen be.

Egiturea eta proposamenak

Planak lau gai ditu: Udal barruko lanketea, Burujabetza feministea, Gizarte erantzukizuna eta Indarkeria matxistea. Dokumentuan, erreferentziakozko araudiak eta estrategiak batzean dira, Planaren ezaugarriak eta kudeaketa sistemaa zehazten da eta gaien arabera programazioa eta be-
rauz ezartzeko kronograma proposatzen da. Planak lau urteko indarraldia izango dau.

Udal barruko lanketari jagokonean, udal langileai formazioa emotea eta ordenantza bat sortu eta ezartzea, ezeinbestekotzat jotzen dau, baita jaietarako indarkeria matxistearen kontrako protokoloa diseinetea be.

Burujabetza feministeari jagokonean, Udalak diru partida garrantzitsua bideratzen dau Arratiako Jabekuntza Eskolarako, bertan landuten dalako andren ahalduntzea. Horretan lagundutea eta Bardintasunerako Herriarren Gune bat sortzea proposatzen dau Planak, beste gauza batzuen artean.

Gizarte erantzukizunari jagokonean, urigintza aldetik egin dan "lan polita" azpimarratu eban Legarretak. Dana dala, gabeziak be badagoz; tartean, gizonen papela. Alkarteai emoten jakiezan diru laguntzak be barrikusi behar dira teknikariaren eretxian.

Indarkeria matxistea dala-eta, jaietako protokoloa eztabaidatuteko prozesua diseinetan dau Plan Proposamenak.

ARRATIA

Arratiako produktuen Gabonetako loteak eta ekoizleen katalogoa aurkeztuko ditu Igitiek

Igitiek, Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkarreak, Arratiko Zaporeak izeneko kanpaina abiatuko dau, Errota Fundazioa, Gorbeialde eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz.



Erredakzioa

Kanpaina honetan ekimen bi dagoz. Alde batetik, Igitiek Arratiako ekoizleen katalogo bat aurkeztuko dau, eta bestetik, ekoizle horreen produktuez osotutako otzara bi eskainiko dabez Gabonetarako.

Katalogoan, Arratiako 10 ekoizle eta proiektu desbardin azalduko dira. Igitie alkarreko guztiak ez dagoz han eta Igitie alkarreko ez diran batzuk be agertuko dira, baina "gure filosofiagaz bat egiten daben inguruko baserritarak dira" danak, Igitiekoren arabera. Alkarreak, "tokiko produktu eko-

logikoak konsumidu; nekazal kultura, lana eta bizitza defendidu eta herri komunitate eta ekonomiak" babestea ditu helburutzat.

Gabonetako loteak

Gabonetako loteen kanpaina urri bigarrenaren 15ean hasi, eta zemendiaren 30ean amaituko da. Otzara bi dagoz aukeran; Leungane izenekoa 30 euroko prezioan eta Itxina izenekoa, 50 eurotan. Hainbat ekoizleren produktuak egongo dira bertan: konserbak, ezitia, txarrikia, pastea, gozokiak eta marmeladak, esate baterako.

Eskariak 605 728 358 edo 667

395 099 telefonoetan egin behar dira. Igorreko Azokan, abenduaren 14an; Dimako Azokan hurrengo egunean; Arteako Herriko Bentan 19an eta Zeanuriko Txoko Sagarnan 20an, jaso ahal izango dira otzarok.

Arratiako ekoizleak eskaintza hau egiten daben lehen aldia da. "Honako hau aparteko eskaintzea da, Arratiako nekazari, abeltzain eta ekoizle txikien arteko alkarlan bat. Finantziarioa Errota eta Gorbeialdek lagunduta lortu dogu. Gure helburua lehen sektorea ikusgarri egitea da; izan be ederra litzateke honen antzeko kanpaina gehiago martxan jarri ahal izatea, horretarako baserritar gehiago ekimen honetara bilduz (artzain, ardogile eta konserbagile gazte zein zahar). Aurtengoa kemen handiz egiten dogun ahalegina da, eta espero dogu arratiarren erantzunari esker aurrera egingo dogula etorkizunean be, euren etxeetako mahaietara iristeko" azaldu deutse BEGITURI Igitie alkartetik.

Igitie

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkarrea, 2012an sortu zan. Baserritik bizi gura eta agroekologian interesatutako baserritarak osatu eban. Alkarreko baserritarak Igorreko eta Dimako azokan bitartez, herriarregandik hur egoten saiatzen dira.

Beste ekintza batzuk be egin ditu alkarreak. Elikadura subirautearen inguruko berbaldi eta topaketak; TTIParen aurkako bizikleta martxea; transgeniko eta glifosatoa debekatzeko mozinoen aurkezpena udal batzarretan; artikulua presan sektorearen inguruko gaiak landuz; inausketa ikastaroak; eskoletan eta udalekuetan tailerrak; EHKO kolektiboaren moduko ekimenak bultzatzea; eskola jantokien inguruko informazioa zabaldutea; sukaldaritza ikastaroak antolatutea eta euren artean auzolana landutea dira horreetako batzuk.

deutsee herriko komertzioai. Horreen aurrean, herriko komertzioak, bezeroentzako arreta eta zerbitzu personalizaua eskaintzen dabe.

Egitaraua

10:00etatik **19:30**era, azokea.
11:00etatik **12:00**etara, dronen zirkuitua (lehenengo txandea).
11:00etatik **13:00**etara, egur jolasak.
11:30etik **13:30**era, Zaztaparrak.
16:30etik, **18:30**era, errealidade birtualeko simulazioa.
17:00etatik **18:00**etara, dronen zirkuitua (bigarren txandea).
17:00etatik **19:00**etara, Segway zirkuitua.
18:30ean, kopaua.

IGORRE

Merkataritza azokea eta jaia hilaren 5ean

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 5erako, egun osoko jaia antolatu dau AMEK Igorreko merkatarien alkarreak, ondo pasetako eta jenteari herriko komertzioan konsumiduten animetako. Aurtengoa hamargarren edizioa da eta bederatzi komertzio hartuko dabe parte merkataritza jaietan.

Beste ekintza askoren artean, Igorreko komertzioen azokea,

dronen zirkuitua, egur jolasak edo errealidade birtuala egongo dira Igorren goizeko 10:00etatik aurrera. "Helburua, edade guztietako jentearentzako ekintza erakargarriak egitea da, eta aukerea aprobetxatzea komertzioak ezetuten emoteko eta salmentak sustatzeko" dinoe AMEtik. Izan be, konsumitzaileen ohiturak aldatu egin dira eta saltoki handiak eta merkataritza elektronikoak kalte handia egiten

ZEBERIO

Frontoia egin dabe eskolan

Erredakzinoa

Frontoia eskola-umeak erabili dagien egin dabe Sautuolabari auzoan dagoan eskolan. Lanak garagarriaren 15etik abuztuaren 15era bitartean egin ziran, eta aurrekontua 8.500 eurokoa izan da. Udalak ordaindu dau obrea. Zeberion hiru frontoi dagoz: plazakoa, Ermitabarrikoa, eta hau, Sautuolabarikoa.

Beste 6.500 euro be inbertidu dira eskolan: gela bat bitan bananduteko eta saneamentua

hobetuteko, hain zuzen be.

Pelota eskola proiektua

Frontoiak eta Biharko Izarrak Txapelketea izan arren, Zeberio ez dauka pelota eskolarik eta Zaratamo eta Igorreko alkarteak antolatuten dauz hainbat ekintza. Sautuolabari frontoiagaz "umeen afizinoa berbitzu gura da, eta guraso batzuk hasi dira galdetzen ea eskolarik sortuko dan. Proiektu bat martxan dago" azaldu deutso BEGITURI Beñat Iriondo zinegotziak.

ARTEA

Kalte handiak eragin ditue Arteako eskolan eta Santiago ermitan

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 21eko gauean, ezezagun batzuk Arteako Santiago ermitan sartu eta kalte handiak eragin ebezan; tartean, 1700 inguruko Santiagoren tailu bateri. Ondoren, eskolara joan eta han be kalte handiak egin ebezan batek.

Arratiako eleizeak jakitera emondakoaren arabera, hila-ren 21eko gauean, auzokideak ermita barruan argiak egozala konturatu ziran, eta badaezpada Ertzaintzara deitu eben.

Baten batzuek, atea indarrez zabaldu eben eta kalteak egin eutsien Santiagoren irudiari. Kalidade oneko irudi barrokoa da eta hori konponduteko, enpresa espezialdu bateri eskatu deutso aurrekontua Arratiako eleizeak. Altara hondatu eta argi koadroan be kalteak egin ebezan.

Arteako eskolan kalte handiak

Antza, ermitatik eskolara joan zan

gero lagun bat, eta eskolan ur pasoa zabaldu eban. Urak komun bitako sabaia bota eta eskola guztia urez bete eban. Ura urte-ten egoala, hiru ate apurtu, eta ordenagailuak, inprimagailua eta sukaldeko platerak eta ontziteria hondatu ebezan. "Irakasle gelan hondamendia sortu eban" azaldu deutso BEGITURI Alberto Intxaurrega Arteako alkateak.

Egoera horren aurrean, eskolako gurasoak, eskolan agertu eta txukuntze lanai ekin eutsen. Ura kendu eta ahal zan guztia atondu eben, astelehenean eskolea atea zabaldu moduan egoteko. Ondoren, Udalak garbiketa enpresa bateri deitu eutsan.

Eskolan egindako kalte materialen zati bat, ordenagailuak eta abar, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ordaindu dauz. Eraikinean egindako kalteak barriz, Udalak. Peritu batek egin behar dau kalkulua baina diru asko izango dala argi dauka alkateak.

Ertzaintza kasua ikertzen dabil.



ARRATIA

Arratiako Enpresa Ideien Hirugarren Lehiaketarako deialdia egin dau Arratiako Udalen Mankomunitateak

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia programeagaz lankidetzan egin dau.

Erredakzinoa

Enpresa Ideien Lehiaketan 18 eta 35 urte bitarteko gazteak hartu ahal izango dabe parte, eta, guztira, 7.000 euro bananduko dira saritan. Lehenengo saria 4.000 eurokoa izango da, bigarren saria 2.000 eurokoa, eta 1.000 euroko beste sari bat emongo jako Le-

hen Sektoreari lotutako idearik onenari; izan be, sektore hori estrategikoa da Arratian oindino be. Proiektuak aurkezteko azken eguna urri bigarrenaren 31n, 14:00etan, izango da.

Sariak lortzeako baldintzetako bat da enpresa idea; hau da, enpresearen egoitza edo ekoizpen gunea, Arratian egotea, eta

2019. urtean daborduko sortu diran proiektuak be hartu leikie parte.

Epaimahaiak, proiektuaren izakera barrizalea hartuko dau kontuan batez be. Baita balio erantsia eukitea, edo-eta originala izatea, eta kalidadezko enplegua sortzeako dituan aukerak be. Proiektuaren garapen eta zehaztasun maila, iraunkortasuna, eta gizartean daukan eragina be izango ditu kontuan epaimahaiak bere ebatzian. Aurreikuspenen arabera, sariak 2019ko abenduaren 11n bananduko dira. Saria jasoten daben proiektuen ideak eta horreen jaubetza intelektuala Arratiako Udalen Mankomunitatearenak izango dira, eta askatasun osoz jarri ahal izango dira martxan, zuzenean edo hirugarrenen bitartez, idea aurkeztu dauan enpreseagaz edo hori barik; beti be, idea sortu daben personak hori garatzeko asmorik ez badaukie.

ARRATIA

Beldur Barik jarkerea landuteko beste modu bat bilatuko dabe Arratian

Erredakzinoa

Beldur Barik Bideo Lehiaketea martxan da eta bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten daben 12 eta 26 bitartekoak hartu daikie parte. Aurten, hiru kategoria dagoz: 2006an eta 2007an jaiotakoak, 2001 eta 2005 bitartean jaiotakoak eta 1993 eta 2000 bitartean jaiotakoak. Hamar urte beteten dauz bideo lehiaketeak. Zeberioko Udaleko Bardintasun Zerbitzua bideo lehiaketan parte hartzeako "bultzadea" emoten jaibilke herriko gazteai.

Arratian barriz, Beldur Barik jarkerea eta filosofia landuteko beste eredu baten bila dabilz. Izan be, aurten ez da egongo Arratian Beldur Barik tokiko lehiaketea. "Pasa dan urtean egin genduan ebaluaketan, begiraleakaz, ikusi genduan Arratian, gazteak nekata dagozala. Oso inportantea da Beldur Barik-en filosofia landuten jarraitutea, baina akaso, lehiaketea ez dan beste formatu batean. Tailerren bat edo, baina euren eragina edo inpaktua izango dauan formatu bategaz" azaldu deutso BEGITURI Oihane Zulet AUMko Bardintasun Teknikariak.

Beldur Barik jarkerea

Programa hau urtero egiten da gazteak indarkeria matxista prebeniduteko. Beldur Barik Ikus-entzunezko Lehiaketea 12 eta 26 urte bitarteko gazteai dago zuzenduta eta lanak, lehiaketa orokorrean eta tokiko

lehiaketan hartu izan dabe parte.

Lehiaketea, Beldur Barik programearen ekintza nagusietako bat da eta adierazpen artistikoak saritzen ditu. Lanak erakutsi behar dabe zelan neska eta mutilak egiten deutseen

aurre desbardintasun egoerai Beldur Barik jarkereagaz; hau da, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, alkarkidetzeta eta indarkeria sexistearen bazterketa irmoa adierazoten dabezan jarkerakaz.

Banoalako jenero guztia merketuta %20, %30 eta %50

Galanta lentzeria
Agirre Lehendakaria 23 · Igorre
94 631 90 08

LEMOA

Zaratea murrizteko Ekintza Plana egin dau Udalak

Ikusita herrian zaratearen inguruko kejak ugariak zirala, 2014an, diagnosi bat egiteko enpresa bat kontratau eban Udalak. Oin Ekintza Plana onartu dau, zaratea sortzean dabenai zaratea murrizteko neurriak eskatzeko.

Erredakzioa

Udalak jarraipena egingo deutse zaratea sortzean daben entidadei legeak ezarritako dezibelioak gainditu ez dagiezan. Ekintza Planean, zein puntutan bajatu behar dan zarata maila, eta zenbat dezibelio bajatu behar diran esaten da.

Diagnosian ikusi zan, puntu batzuetan legeak ezartzen dituan dezibelioetatik gora egoten zirala eta hiru iturritatik sortzean zirala zaratok. Cementos Lemoa fabrikak, trenak eta BFAko kaminoak dira hiru iturri horreek. Euskal Trenbide Sareak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Cementos Lemoa enpresen euren ekintza planak ditue Udalak eskatutakoari egokitzeko eta atzen urteotan zarata maila bajatu egin dala dino Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. Bost urtetako ekintza planak dira eta urte bakoitzean zer egingo daben dezibelioak bajatuteko zehazten da plan honeetan.

Udalak, "urteak daroaz Cementoseko zaratak kontroletan. 2004tik aurrera, gauean, neurketak egiten dira. Herrian zehar zein fabrikearen inguruan, kontroletako dagozan zaratak. "Atzen urteotan Cementos dabil inbersinoak egiten eta egia da, oin dala urte

batzuk eta gaur egungo zaratak, ez daukiela zerikusirik. Neurri teknikoak hartu dabez" azaldu deutso BEGITURI alkateak.

Udalak jarraipena egiten deutse zaratea sortzean daben entidadei eta honeek azaldu behar izaten dabez hartutako neurriak. Ondoren, Udalak neurketak egiten ditu ikusteko ea puntu horretako zaratea legeak markatukoaren barruan dagoan.

Zarata mapea

Zaratearen mapea, herriko zaratearen diagnosis jasoten dauan dokumentua da. "Egoerearen argazki bat da eta mota desbardinatoko eremuak ditu: industrial, bizitekoa... eta zaratea ehigizkoa bada esku-hartzea ebazten da egoerea hobetuteko" azaldu deutso BEGITURI Yolanda Parra Lemoako Ingurumen Teknikariak.

Horretarako neurketak egin behar izaten dira. Neurketa asko egin behar dira, eta momentu desbardinetan, zaratak identifiketako. Dezibelioak gaindituten dauzan zaratea identifiketea ez da erraza izaten. Izan be, "jakin behar da ea zarata hori dan dezibelioak sortzean dauzena, ala zarata nahaste batek sortzean dituan zarata maila hori. Konplejua da" dino teknikariak.



ARRATIA

Ilgoran Jabekuntza Eskolako ikasturteko lehenengo tailerra Zeanurin izango da

Erredakzioa

Izen, logo eta irudi barriak daukaz Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak. Eta ikasturte barri honetan, baita ikastaro eta ardatz barriak be. Holan, beste batzuen artean, *Feminismoa eta euskera* ikastaroa, gau baten mendian bibaka egiteko proposamena eta Morea eta Grisa edadeko andrentzako ikastaro lerroa dagoz 2019-2020 ikasturterako eskaintzan. Andra migraduen topaguneai formatua aldatuteko hausnarketea be proposatuten dau eskoleak.

Zeanuriko Mazala Andra Taldeak antolatutako *Cuando el dolor nos habla. Aprendiendo a escuchar mi cuerpo* izeneko tailerragaz hasiko da ikasturtea. Erika Mayok emongo dau eta 10 euroko prezioa dauka. Lau saio izango ditu, urri bigarrenaren 16an izango da lehenengo, eta hilaren 23an, 30ean eta zemendiaren 6an izango dira hurrengoak Zeanuriko Kultur Etxean.

Hurrengo, Morea eta Grisa ardatzaren lehenengo berbaldia izango da eta Monica Ramos Toro, *Envejecer siendo mujer* liburuen egilea egongo da Ilgoran, zaharztearoz andrak topau edo asmatu daitezkezan etxe eta alkarbizitarako aukeren gainean berba egiteko.

Berbaldiaren hurrengo egunean, gaiaren lanketea egingo dabe partaideak. Beste gai bat be landuko da oingo ikasturtean; bakardadea, hain zuzen be. Data zehaztu barik dagoan arren, Areatzan izango da, Carmen de la Mata Cordobako unibersidadeko irakaslearen eskutik.

Morea eta Grisa ikuspegi feministatik adinkeriaren gainean hausnartzeko aukerea emon gura dauan espazioa da. Bertan, edadeko andrak, gaien adituak diran beste andra batzukaz batuko dira hausnarketa eta eztabaidarako.

Beste unibersidadeko irakasle bat be, Amelia Barquin, Mondragon Unibertsitateko irakaslea, Artean, Interkulturalidadeari buruzko berbaldia emotekoa da abenduan. Diman barriz, feminismoa eta euskeraren arteko loturea landuko dabe Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel idazleak aprilean.

Elektrizidade tailer bat be aurrekusita dago Bedian zemendirako.



Baita kartel feministak diseinetako tailerra Lemoan.

Arratian mendiak askatasun sentipenak esnatzen ditu askorengan eta zale asko dituan aisialdirako aukerea da. Mendian andren autonomia landuteko, igaz, mendiko orientazioa landu eben andrak Laura Ruiz mendi teknikariagaz. Maiatza aldean, mendian gau bat egiteko proposamena dago Ilgoran eskolako eskaintzan.

Andra migraduen topagunea ez da egongo

Oihane Zulet Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardin-tasun Teknikariaren arabera, Andra migraduen topagunea aldatu gura dabe. "Aurten ez da egongo andra migraduen topagunea. Jarraituko dogu gaia lantzen, baina aurten hausnarketa urtea izango da. Egongo da diru partida bat gaia lantzeko baina ez oin arteko formatuan, beste formaturen batean. Ez dakigu zein formatutan" azaldu deutso BEGITURI.

Hainbat urte izan ditu topaguneak eta formatua agortutzat emoten dau Teknikariak, andra barriengana heltzean ez dalakoan. Izan be, atzen urteotan ez da andra barririk sartu.

ARRATIA

Sormena eta umore ona jaietan

Erredakzioa

Zeanuriko Altzusta auzunean, San Migel jaiak urri bigarrenaren 4 eta 5ean ospatuko ditue. Urri bigarrenaren 4an, Asisko San Franzisko-ren eguna da eta Arratian, besteak beste, Dimako Indusin ospatuten dabe. Hilaren 13an San Fausto da eta Arantzazun ospatuko dira jaiak.

Hilaren 13an izango da Garbeko Azokea be. Igorreko azoka honek 45 urte beteko ditu aurten eta betiko moduan, baserriko udagoieneko produkturik onenak egongo dira. Hogeta hamar ekoizle inguru espero ditue Xabier Altube eta Ramon Urkiza antolatzaileak. "Betiko moduan, eta azokea interesgarri egiteko, daretarik apur bat egon daiten saiatu gara. Barazkiak, frutak, lorak, gaztaia, pastelak eta ogia" azaldu deutso BEGITURI Altubek. Giroa animetako ekitaldiak be egongo dira.

Altzusta (Zeanuri)

Urri bigarrenak 4, barikua

18:30etan, Mus Txapelketarako izen emotea; 19:00etan, Mus Txapelketea.

Urri bigarrenak 5, zapatua

12:00etan, mezea eta barauskarrria; 14:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, Briska Txapelketea eta Bola Jokoa; 19:00etan, Ein Go taldeagaz jantzaldia eta txorizoa eta urdaia.

Indusi (Dima)

Urri bigarrenak 4, barikua

12:00etan, mezea; 13:00etan, barauskarrria; 17:00etan, Briska Txapelketea; 19:30ean, txitxi-burruntzia; 21:00etan, Ein GO Kantan eta Dantzari; 22:00etan, txokolata.

Urri bigarrenak 5, zapatua

13:00etan, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia bertsoariak; 14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketea; 17:00etan, II. Babaosteko Induolinpiadak; 19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketak; 21:30ean, erromeria Jainaga eta Narbaizagaz; 22:00etan, auzokoan antzerkia *Zer egin diruegaz?* antzezlan; 23:00etan, zozketea,

txokolata eta erromeria.

Sanfaustoak Arantzazun

Arantzazun, sanpedroez gainera, sanfaustoak be ospatuten dira.

Urri bigarrenak 11, barikua

17:00etan, umeen eskupelota partiduak; 19:30ean, buruhandiak eta Arantzazu Kantari pintxo poteoan, Kantu Bat Gara taldeagaz Herriko Tabernatik, Montero jatetxera.

Urri bigarrenak 12, zapatua

09:00etan, plazatik hasita, Arantzazuko Mugari Bira Argiñatx Mendi Taldeak antolatuta; 14:00etan, herri bazkaria plazan; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak; 20:00etan, Jokaldi taldeagaz erromeria eta atsedendian *Arantzazuko jaiak Super8* filmaren emonaldia.

Urri bigarrenak 13, domekea

10:00etan, dienea txistulariakaz; 10:30ean, mezea; 11:30ean, buruhandiak, Urpegaz herri kirolak eta jolasak ume eta nagusientzat; 17:30ean, Bingo-bertsok eta txokolata.

Euria egiten badau ekintzak frontoian egingo dira.

ARGAZKI LEHIAKETEA

118 argazki aurkeztu dira lehiaketara



Marroïtxo lehiotik begire. Joseba Rodriguezek aterata.

Zeanuriko Deiene Gutubai Zamezaren *Etxebarrie baserrie* izeneko argazkiak eroan dau lehenengo saria eta Igorreko Joseba Rodriguezen *Marroïtxo lehiotik begire* izenekoak bigarrena. Epaimahaia, Ibone Barrenetxea eta Aranzazu Mata "Zazu" argazkilariak osotu dabe. Aurten, 118 argazki aurkeztu ditue BEGITUKO irakurleak Argazki Lehiaketara.



Gamtoos Mouth. Haritz Oiarbidek Hegoafrikan aterata.



Iceland. Goiatz Ateagak aterata.

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsinoa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili~Kili
Antzoki eta Kulturak

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 63 81

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 64 82 · 906 864 018

izkaifisios

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKA
Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com



Nik be bai zu. Joseba Rodriguezek ateratako argazkia Santa Teresa de Galluran.



Babesa. Garazi Urienek Orbaizetan aterata.



Cadaques. Libe Ormazabalek aterata.



Carcassonne. Amaia Astondoak ateratako argazkia.



Iluntzeko paseoa. Aitor Arnaizek Cadizen aterata.



La Roque-Gageac. Deiene Gurtubaik Dordoñan ateratako argazkia.



Kokoak. Miren Urutxurtuk Costa Rican aterata.



Cambrils. Asier Larreak ateratako argazkia.



Schwarzsee. Arantza Iruretagoienak Austrian aterata.

Oraineko Urri lezetxoan

Gure

ikastetxeak

Luskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

MENDIA**VIII. ZeberioXTrem urri bigarrenaren izango da****Erredakzioa**

Aurreko edizioak bagilean egin badira be, aurten udagoiengan egingo dira ZeberioXTrem mendi bizikletako probak eta trail edo mendi lasterketea. Urri lehenengoaren 13an, Ermitabarritik, 09:00etan abiatuko dira txirindulariak eta 09:15ean oinezkoak.

Mendi bizikleteagaz egiteko gogortasun maila desbardinero hiru proba dagoz: XTrem 43 kilometrokoa; luzea, 31 kilometrokoa eta laburra 12 kilometrokoa. Trail edo mendi lasterketea be egongo da, 15 kilometrokoa.

Izen emotea

Izena www.kirolprobak.com webgunean edo-eta Garribikes dendan emon daiteke urri bigarrenaren 9ra arte, 15 euroko prezioan. Egunean bertan egin ezker, 20



euro ordaindu beharko dira.

ZeberioXTrem, Alboko Esklerosi Amiotrofiko gaixotasunaren kontrako burrukarako ekimen solidarioa da eta diru bat emongo jako Adela alkarteari.

MENDIA**Xendazaletasun Ligako ibilaldia Zeberion****Erredakzioa**

Zeberio Austari Mendi Taldeak eta Bizkaiko Mendizale Federazioak (BMF), Bizkaiko Xendazaletasun II. Ligearen barruan, PR-BI 11 Zubialde zeharreko ibilbidea antolatu dabe urri bigarrenaren 6rako. Ibilbideak 12,5 kilometro ditu.

Ibiltariak 08:30ean egon behar dira Zubialde plazan, 09:00etan ibilbideari ekiteko. Izena online emon behar da <https://bmf-fvm.org/eu/bizkaiko-xendazaletasun-liga/izen-ematea> helbidean, hila-

ren 3ra arte. Egunean bertan ezin da izena emon.

Xendazaletasun Liga

Bizkaiko Xendazaletasun Ligaren helburua, BMFk homologautako bidezidorrak sustatu eta ezetu arazotea da. Xendazaletuak, hau da partaideak, probaz proba gehitzen joango dan puntuazio bat jasoko dabe parte hartzeagaitik.

MENDIA**Dimako Zizetan Mendi Martxea hilaren 12an****Erredakzioa**

Hiru ibilbide izango ditu aukeran. Familia ibilbideak 9 kilometro ditu, ibilbide laburrak 19 kilometro eta luzeak 28. Partaideak Dimako frontoi txikitik urtengo dira, 10:00etan familia ibilbidea egin gura dabena eta 08:00etan beste ibilbideai ekingo deuseenak. Ibilbidean zehar horniketa puntuak egongo dira eta ibilbide luzea egiten dabena

Belatxikieta eta Larrunganeke tontrorak zapalduko dabez.

Helmuga kontrola 16:00etan zarratuko da.

Izen emotea

Urri bigarrenaren 10a baino lehen, www.dima.eus webgunean emon daiteke izena, 8 euro ordainduta. Egun berean, urtekera puntuak be emon daiteke, 07:30etik aurrera, 12 euroko prezioan.

PELOTEA**Amaia Alday, Lau eta Erdiko Emakume Master Cup Txapelketea jokatu du****Erredakzioa**

Andrazkoen artean eskupeletoa zabaltzea dauka helburu Laboral Kutxa Master Cup Txapelketeak eta gura dauan edozein neska pelotarik hartu ahal dau parte bertan. Dana dala, Lau eta Erdiko Txapelketearen hirugarren edizio honetan pelotaririk onenak, tartean Amaia Alday dimoztarrak, parte hartuko dabela jakinarazo eben antolatzaileak prentsurreko aurkezpenean. Izan be, Leire Etxaniz txapelkunak, Patri Espinarrak, Maite Ruiz de Larramendik, Leire Garaik eta Olatz Arrizabalagak baiezatu eben euren partaidetzea. Txapelketea urri bigarrenaren hasi eta abenduaren 15ean amaituko da, Barakaldon.

Pelotariak talde bitan bananduko dira. Izan be, partaide batzuk pelota gogoragoakaz jokatzea eskatu eben. Hori dala-eta, batzuek pelota mistoagaz jokatuko dabe eta beste batzuek goxuagaz. Eta betiko moduan, jokalaria mailatan jokatuko dabe; Lehen Maila, Promozio Maila eta Hasibariak, hain zuzen be.

Txapelketea kanporaketakaz hasiko da, trinagelukatu formatuan. Kanporaketak izena emon dabena pelotari kopuruaren arabera antolatuko dira baina "asmoa da aurrekanporaketak Araba eta Gipuzkoan jokatzea eta final-laurdenak, finalerdiak eta finalak Bizkaian". Finalerdiak Galdakaon jokatuko dira abenduaren 1ean eta finalak bi aste geroago (abenduak 15), Barakaldon.

ETBgaz hiru urtetarako sinatutako kontratua dala-eta, atzen bi jaialdi honek ETB-1k zuzenean

eskainiko ditu.

Amaia Alday

Alday Lau eta Erdiko Promozio Mailako txapela jantzi eban 2018ko abenduan, Azkoitiko pelotalekuan Oihana Orbegozori finala irabazita. Aurten, Lehen Mailan jokatuko dau. Ebatzi barik dauka pelota goxua ala mistoagaz jokatuko dauan.

Arratia Futbol Taldeko jokalaria be bada Alday. Taldea, 2019-2020 denporaldian, Lehenengo Nazional Mailan dago jokatuten.

**MENDIA****Egeak eta Kaspersenek irabazi eben Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea****Erredakzioa**

Aritz Egea urretxuarra eta Yngvild Kaspersen norvegiarra izan dira Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketearen zazpigarren edizioan helmugara iristen lehenengoak, 31 kilometro eta 2.400 metro desnibeletako ibilbidea egin ostean. Guztira 520 galapari urten ziran Zeanuriko plazatik lasterketeari ekiteko. Gizonezkoetan, Asier Larruzeak eta Pere Rullanek osatu eben podiuma; andrazkoetan, Andrea Garayk eta Maria Zorrozak. Lehenengo arratiarrak Onditz Iturbe Igorrekoa eta Xabier Gonzalez Dimakoa izan dira.

Gorbeia Suzien Ternua Bizkaiko Txapelketea be izan da, Asier Larruzeak eta Maria Zorrozak jantzi dabe Bizkaiko txapela.

Kilometro Bertikalari jagokonean, andrazkoetan, Yngvild Kaspersen, Andrea Garay eta Ainhoa Lendinez igon ziran podiumera. Gizonen artean, barriz, azkarrenak Antonio Alcalde, Imanol Goñi eta Xabier Macias izan ziran.



Gizonezko eta andrazkoen podium-ak.

DUATLOIA

Ume eta gaztetxoentzako duatloi herrikoia Igorren

IGORREKO VII. DUATLOI HERRIKOIA
URRIAREN 6an IGORREKO ESKOLETAN
OSKAR GARRO LAGUN TALDEAK ANTOLATUA



Erredakzioa

Urri bigarrenaren 6an, Oskar Garro Lagun Taldeak antolatuta, Igorreko VII. Duatloi Herrikoia izango da eskoletan. Lau kategoria egongo dira: 0 eta 4 urte bitartekoa, 5 eta 7 bitartekoa, 8 eta 11 urte artekoentzako beste bat, eta 12 eta 15 urte bitartekoentzako beste egongo da kategoria bat.

Lehenengo probak lau urte arteko umeentzakoak izango dira, 11:00etan. Galapan 120 metro, eta bizikletan 200 metro egingo dabez. Hamar minutu beranduego, 5 eta 7 urte bitartekoak hasiko dira. Honeek 300 metro galapan, 300 bizikletan eta beste 300 metro barrero be galapan egingo dabez. Ondoren, 11:20ean, 8 eta 11 urte bitartekoen txandea izango da. Honeek, 300 metro arineketa, 900 metro bizikletan eta beste 300 metro barrero be galapan egingo dabez. Nagusienak barriz, 11:30ean daukie urteteko

ordua eta 900 metro galapan, 1.200 metro bizikletan, eta 900 metro arineketa egingo dabez. Amaitutakoan kopautxoak egongo da, opariak partaide guztientzat eta beste opari batzuen zozketea be egongo da.

Izen emotea

Izen emotea 10:00etatik 10:45era izango da eskoletan. Partaideak 3 euro pagau behar dabez. Oskar Garro Lagun Taldeak duatloia antolatuten dau ziklismo egokitutako txirrindulari igorretarra lagunduteko. Jasoten dan dirua, alde batetik duatloia bera pagetako eta bestetik ziklisteari entrenamentuakaz lagunduteko eta txapelketetan parte hartzeako erabilten da.

Txirrindulari igorretarrak ez daki aurten lasterketarik egiterik izango dauan. Izan be, hanka bietan ebakuntzea egin eutsien eta oin ondo osatzea dala garrantzitsuena azaldu deutso BEGITURI.

PELOTEA

Dimako Udagoieneko Eskupelota Txapelketa hilaren 11n hasiko da

Erredakzioa

Txapelketako bosgarren edizinoa jokatuko da, bigarren udagoienean. Aurten, Lau eta Erdiko erara jokatuko da eta andrak be lehiatuko dira lehenengoz. Izan be, aurreko urteetan erakustaldiak egin dabez baina txapelketan parte hartu barik. Partiduak urri bigarrenaren 11n eta 18an izango dira eta 25ean finalak jokatuko dira. Txumuluxueta Pelota Klubak antolatuten dau txapelketea.

Pelotariak

Mailai jagokienean, gizonak Gazte mailan eta Nagusi mailan jokatuko dabe eta andrak maila bakarrean. Andrazkoetan, Amaia Alday (Dima), Olatz Arrizabalaga (Gernika), Arrate Bergara (Tutera) eta Leire Garai (Gasteiz) neurtuko dira txapela lortzeako. Gizezkoetan barriz, Gazte mailan, Xabier Rekalde (Dima), Enok Iglesias (Zaratamo), Joritz Arbaiza (Orozko) eta Xabi Beitia (Munitibar) izango dira. Nagusietan, Kimetz Zapiko (Dima), Mikel Aurrekoetxea (Lemoa), Mikel Beldarrain (Artea), eta Ibon Larrinaga (Usansolo) saiatuko dira Dimako txapela janzten.

Txapelketako partiduen aurretik, 17:30ean, klubeko umeak jokatuko dabez partiduak. "Txapelketea biribilduteko, jardunaldi guztietan taberna, musikea, erifea eta giro onik ez da faltauko" azaldu deutso BEGITURI Ekhi Ziarrusta Txumuluxuetakoak.

BOLA JOKOA

Bola jokoan neurtuko dira Zeanuriko kofradiak Alzustan

Urri bigarrenaren 5ean, zapatuan, arrastiko 17:00etatik aurrera, Alzustako bolatokian jokatuko da Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea.

Jon Urutxurtu

Udalerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzen dan txapelketa horretan parte hartzeko aukerea: Alzuak, Alzustak, Asterrriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osatuko dabe, bolari bakoak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botatzen dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, gerrea jokatuko litzateke.

Aurtengo udan, bakarkako bost txapelketa jokatuko dira Zeanuriko Alzuan, Undurragan, Ipiñaburur, San Justo eta San Lontzon, eta toki bakoetean sailkatu ziran lehenengo lau bolariak hartu

eben parte Zeanuriko Bakarkako Txapelketan, San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, Eusebio Larrabal izan zan eta bigarren eta hirugarren tokietan Juantxo Ozerinjuregi eta Esteban Ozerinjuregi sailkatu ziran.

Andrazkoai jagokienez, herri mailan antolatzen dan txapelketa bakarra San Lontzon jokatzen da eta irabazlea Miren Zuluaga izan zan, bigarrena Kasilda Egiluz eta hirugarren tokia Anita Astondoarentzat izan zan.

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribaduen laguntza barik, eta Zeanuriko Udalaren babesarekin, Alzustako kofradiaren eta Alzustan bertan dagoan Ellauri Hoteleko Kiloterdi Txokoaren laguntza izango dau.



Juantxo Ozerinjuregik Alzuako kofradiagaz hartuko dau parte.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

ONDAREA

Ondarea adierazpen kolektibo moduan erakutsiko dabe Ondarearen Europako Jardunaldiak

Aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiak, ondarearen izakera kolektiboan ipiniko dabe fokoa.

Erredakzioa

"Kultur ondarea oso gitxitan da persona bakar baten egintza. Izan be, bat gatozen ekintzak, gure bizitzari benetan zentzua emoten deutesienak eta esku hartzerak bultzatzen gaituenak, adierazpen kolektiboak izaten dira" dino Ondarearen Bizkaiko egitararen hitzaurrean Foru Aldundikoak. Ondarea plazara! da aurtengo gaia. Arratian, gaiari lotutako hainbat jardura prestatu ditue Areatza, Igorre eta Zeanurin.

Hilaren lehenengo hamabostaldian, ibilbide gidatu bi egongo dira.

Lehenengo, urri bigarrenaren 6an izango da Gorbeiaiko kurutzera eta hurrengo, urri bigarrenaren 13an, Arantza dagoan Gorbeiaiko edurzulora.

Gainontzeko jarduerak, bigarren hamabostaldian izango dira.

Areatzan ibilbide gidatua eta Euskal Jaia

1912an, Club Deportivo Bilbao klubeko kideak, mendiko euskal klub batek antolatutako lehenengo txangoa egin eta Gorbeiaiko kurutzera iron ziran. Hori gogora ekarteko, Gorbeiaiko Parkeak

eta Iñaki Garcia Uribe ordukoaren ibilbide bardina antolatu dabe urri lehenengoaren 6rako. Partaideak 09:00etan batuko dira Pagomakurren, baina alde aurretik izena emon behar da Areatzako Parkearean.

Areatzak egingo dauan beste jarduerak, Udalak antolatutako Euskal Jaia da. Hilaren 19an izango da. Musika plazara! izenpean, aurtengo musika eta jantzea hartuko ditu ardatz nagusi moduan Euskal Jaia.

Igorren Angel Larrearen berbaldia

Igorren, Angel Larrea historialariak Arratiako adierazpen kultural tradizionalen gaineko berbaldia emongo dau hilaren 23an, Kultur Etxean. Batez be, XX. gizaldikoan gainean

jardungo dau: herri kirolak, jokoak eta ermita eta santutegietako jaientan egindako erromeriak, beste batzuen artean.

Zeanurin ibilbide gidatua eta eleizea erre zaneko mendeurrena

Ibilbide bi antolatu ditue Zeanurin ondarearen izakera kolektiboaren gainean hausnartzeko. Ibilbide gidatua, lehenengo hamabostaldian izango da, urri bigarrenaren 13an, hain zuzen be. Arantza, Gorbeiaiko edurzulorra joan eta han, Felix Mugurutzak, edurzulo haretako izotzagaz egiten zan limoi edariaren gainean egingo dau berba. Sasoi baten haraino eta kurutzera joaten zan jentea egunsentia ikusteko San Joan egunean. Partaideak Pagomakurren limoi edaria egin eta edango dabe.

Ibilaldia, ADR Gorbeialdek eta Aunia Kultura Elkartek antolatu dabe eta parte hartu gura dabenak izena 956 122 695 telefonon edo turismo@gorbeialdea.com helbidean emon behar dabe. Hitzordua, 09:30ean da Pagomakurren.



rreko jolasgunean, ermita ondoan.

Bigarren hamabostaldian barritz, Andra Mari parrokia erre zaneko mendeurrena ekarriko dabe gogora. Horretarako hainbat jardura antolatu dabez Udalak eta parrokiak; hilaren 19an, ibilbide gidatua Eleizondotik; 25ean, Ander Manterolaren berbaldia eta 26an, kandelen gaua, kandela argitan egingo dan ibilbide musikalak.

ABESBATZA

Errepertorio eta eszenaratze barriak sortuta, jente barria behar dabe Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzan

Urte bi barru 40 urte beteko ditu Abesbatzak eta ibilbide honetan, izena be hartu dau abesbatzen munduan.

Erredakzioa

Atzenengo urteotan, errepertorioa barriztatzeari, kantu modernoagoak sartzean, eta eszenaratze modu originalean egiteari ekin deutsee, publikoa eta abeslariak eurenganatu guran. Batez be, abots bajuko gizonetakoak behar dabez koruan.

Abesbatzen zahartzea arazo orokorra da. "Beste abesbatzakoak gagozenez, abesbatzak zahartzen doazala asko zabalduko komentarioa da. Batzuk jubiletan dira eta urtetan dana baino jente gitxiago sartzean danez, abesbatzak txikiagoak egiten dira eta, talde lana danez, emonaldietako kalidadean eragina izan ahal dau horrek" azaldu deutso BEGITURI Iñaki Etxezarraga Abesbatzakoak.

Luis Iruarrizaga Abesbatza, momentu honetan, dozena bat gizonetako eta 22 andra inguruko osotuta dabe. Gizonen artean, abots mota bi: tenoreak eta bajak; eta bigarren honetan dago abeslari eskasirik handiena. Andren abotsak be hari bikoak dira: sopranoak eta kontraltoak, hain zuzen

be. Entseguak Igorreko Kultur Etxean egiten ditue, eguzten eta eguzten, 20:00etan andrak eta 21:00etan gizonak. Obrak finduten dabezanean, batera be egiten ditue entseguak.

Zuzendaria, ibilbide handiko eta abesbatzen munduan ezaguna dan Miren Zubieta da. "Sano pozik gagoz beragaz, gaur-gaurko kantuak bultzatzen ditualako. Igaz, esate baterako, Ken Zazpiren kantu batzuk ikasi genduzan" dino Etxezarraga.

Eszenaratzea be barriztuta

Ahaztu barik beti musika polifonikoa egiten dabela abesbatzetan, kontzertuaren testuingurua hartuta, musika mota bat edo beste bat eskaintzen dau Igorreko koruak. Ez dalako bardin Begoñako basilika edo herriko jaientan emotea kontzertua. "Ointsu koruaren eszenaratzea landuten hasi gara; jantza edo irudien moduko beste disziplina artistikoak bat egiten. Sormena bultzatu eta geu zein publikoa animau. Gure sua erakusten badogu, publikoa be bizitu egingo dogulako" dino Irune



Luis Iruarrizaga Abesbatza.

Elexpe korukoak.

Igaz, Arantzarte jantza taldeagaz estrenau ziran eta argi muntaketa berezia prestatu eben. Kontzertua amaitukeran, txalo zaparradea zutunik egin eutsen jentek.

Errepertorioa be barriztu dabe, kantu modernoagoak sartuz. Kantuok, modu polifonikoan kantautu, eder eta harrigarri birsortzen dira. "Gure errepertorioan, Ken Zazpi, Leonard Cohen edo Elvis Presleyren kantuak sartu doguz. Honeek, abesbatzarako armonizautu,

kalidade desbardin eta harrigarri hartzean dabe" dino Francisco Moyak.

Talde lana

Kalidade handiko produktua sortu arren, abesbatza kantetako ez dirala musika ikasketak edo-eta aparteko talenturik behar dino korukoak. "Ikastea errazten daben tresna asko daukaguz; abots bakoitxerako audio espezialduak, berbarako" azaldu dau Moyak. Tresna honeei esker, kantetan

dabe ez bakarrik euskeraz eta gaztelaniaz, baita, latinez, ingelesez, ukraineraz... eta beste hizkuntza askotan be.

Abesbatzako talde lana da eta produktua be taldekoa, persona bakar batek inoz sortu ezingo dauana. "Abesbatzak daukien beste gauza on bat da persona baten abotsa ez dala bereizten, abots edo hari bat dala; hau da abots talde bat, eta batera kantatzen, harmonia eta sonoridade berezia daukaz".

JANTZEA

Arantzarteko jantzariak 45. urteurrena ospatuteko batuko dira



Erredakzioa

Arantzarte Dantza Taldeak 45 urte bete dauz eta, taldekoen esanetan, ibilbide luze eta mamitsua ospatzeko taldean ibili diran eta dabizenak batuko dira jai egun bat eta jantza saioa antolatuteko.

Batzarra urri bigarrenaren 2an izango da, arrastiko 19:00etan, taldeak Igorreko Kultur Etxean daukan entsegu gelan. Ospakizuna urtea amaitu baino lehenago egin gura dabe. "Ekintza batzuk egin gura doguz egindakoa eskertzeko eta alkarbanatzeko" dinoe Arantzartekoak. Izan be, lehengo eta oingo jantzariak barrik, ez litzateke posible izango 45. urteurrena ospatutea.

JAIA

Alemaniar itxurako Urri Fest jaia antolatu dabe Zeberion



Erredakzioa

Zeberioko Txubelasu Guraso Elkarteak, urri bigarrenaren 4rako, alemaniar inspirazinoko jaia antolatu dau Zubialdeko plazan.

Jaia, arrastiko seiretan hasiko da, frontoian umeentzako jolasakaz. Gero, 20:30ean, afaria, alemaniar erara egingo dabe, hango jatekoakaz. Izan be, Zeberioko Urri Festa, Municheko Oktoberfest jaiaren hemengo bersinoa dalako. Hori dala-eta, kodilloa, saltxitxak, patata purea eta txukruta ez dira faltauکو menuan. Afarirako tiketak, Zeberio Herriko Tabernan, Batzokian eta dendan erosi daitezke.

Jaia folk musikeak animauko dau.

LEHIAKETEAK

Lemoako antxinako argazkiak agertuko dira 2020ko egutegian

Erredakzioa

Lemoako Udalak 2020ko egutegia egiteko, aurreko urteetan legez, Argazki Lehiaketea antolatu dau. Lemoa hobeto ezetu eta argazkigintza sustatzeaz gainera, Udaleko 2020 urteko argazkiak aukeratzeko, Udalak VIII. Argazki Lehiaketea ipini dau martxan. Parte hartzeako urri bigarrenaren 31ra arte bialdu daitezke argazkiok kultura@lemoa.net helbidera.

Edonok hartu leikie parte formato horizontaleko Lemoako antxinako erretratu bat bialduta.

Saritutako 12 argazkiak egutegian agertuko dira eta egileak opari bana jasoko dabe. Gabonetan emongo da sarituen barri.

Lehiaketako oinarriak Udaleko webgunean dagoz.



KANTUA

Kantu Afaria egingo da San Kristobaleko txokoan



Erredakzioa

Intxaurbizkar Kultur Elkarteak IV. Kantu Afaria antolatu dau urriaren 5erako. Igorreko San Kristobaleko txokoan izango da, gaueko 21:00etan.

Txokoaren leku mugak diralata, berrogeta hamar personak baino ez dabe aukerea eukiko parte hartzeako. Tiketak Gau Lora eta Berezi tebernetan erosi ahal izango dira, 20 euroko prezioan. Erosteke atzen eguna urri bigarrenaren 2a izango da.

Afari horretan ohitura dan moduan, janak eta kantuak hartuko dabe iluntze eta gauaren zati handi bat. Izan be, asmoa "ondo afaldu eta abestutea da: afari aurretik, afaiten dogun bitartean eta, zer esanik ez, afaldu eta gero".

ZINEKLUBA

Agnes Varda eta JR-ren Caras y lugares dokumentalagaz bueltauko da Igorreko Zinekluba



Erredakzioa

Urri bigarrenaren 3an, iluntzeko 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan eskainiko dabe filma. Igorreko Zineklubak, hilean behin, hileko lehenengo egunean eskaintzen dau aukeraturutako pelikularen bat. Udako etenaldiaren ostean, dokumentalagaz hasiko dau denporaldia.

Caras y lugares pelikula, Agnes Varda zinemagile frantziar mitikoak eta bere lan harrigarriengandik ezaguna egin zan JR artista grafikoak 2017an egindako dokumentala da. Frantziar zehar biajea egin eben jentearen erretratuak egiten eta dokumentalean, horren lekukotza, "baikor eta distiratsua" jasoten da.

Kritikearentzat urteko dokumentalik onena izan zan.

DUNBA

Alemanakaz alkartrukea

Gu Arratia BHI-ko ikasleak gara eta DBH 3. mailan gengozanean, alkartrukea egiteko aukerea emon euskuen.

Arratia BHI Institutua

Alemaniatik hamazortzi personak baino ez eben etorri gura eta horrek baldintzatu egin ginduzan. Orduan, hogeta hamabost personatik, zozketa baten bitartez, hemeretzi izan genduan Alemaniara joateko aukerea.

Bagilaren hogeta hiruan abiatu ginan Munichera, goizeko bostetan ikastetxetik urtenda. Eguna München igaro ondoren, Ulmera joan ginan, bertan, gure alkartruke

kideakaz batzeako. Hurrengo egunean institutua ezetu genduan. Bertan, ingelesa, alemana eta heziketa-fisikoko jardueretan parte hartu genduan. Ondorengo egunetan, motxila hartuta, Mercedes Benz eta Zeppelin museoak, Konstantza lakua, Stuttgart eta Ulm uriak bisitatu genduzan. Atzenengo eguna heldu zan (garagarilaren 2a) eta, bederatzia egun zoragarri pasau eta gero, pena handiz itxi genduzan bertakoak.

Urri lehenengoaren hamazort-



Arratia Institutukoak alemaniarrekaz.



tzian alkartrukeko kideak alkartrukeko gure bederatzia egunetarako. Loiura joan ginan euren bila eta Portugalete inguruak bisitatu genduzan. Hurrengo egunetan Mandoia mendira joan, surf egin, Bilbo, Guggenheim eta Gaztelugatxe bisitetako ekintzetan parte hartu genduan. Gure institutua eta bertako instalazioak be ezetu ditue. Urri lehenengoaren hogeta zazpian itxi ginduzan eta espero dogu eurentzat zein guretzat esperientzia bikaina izatea!

A KI MI KO

I
m
a
n
O
l
a
t
u



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

TEILAK SALGAI

Baserri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibarriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

DANERIK

ETXE BILA

Uritik alde egin guran Arratiako herri baten alokairu bila dagoan Bilboko bikote gaztea gara. 685 787 387. Amaia eta Eneko.

LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m² eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrak emateko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

LANGILE BILA

Axular Kultur Elkartearen astegoienetarako behargin euskaldun bila gabiz.

Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu.

ETXEEN GARBIKUZIA

Etxeak garbitzeko nonor behar badozu, ez eizu dudarik egin. Deitu 632 426 687 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Zeanurin pisua alokagai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta balkoia. Interesdunak deitu zenbaki honetara: 628 041 526.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera
Quien a hierro mata
filma ikusteko.

Jurek Ziemkiewicz (Dima)
Jon Urutxurtu (Zeanuri)



Zertu Kultur Elkarteak emondako BEGITUREN kamiseta bana.

Garbiñe Uriarte (Dima)
Nerea Goioaga (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
anaitza utzi eta oneratu

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94 673 70 87
Tel: 609 79 49 54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com
Tel: 94 631 52 83

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkaia egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Arratiako Enpresa Ideien III. Lehiaketa 2019



Sariak

1. saria: **4.000 €**

2. saria: **2.000 €**

Lehen sektoreari
lotutako ideiarik onena: **1.000 €**

aurreko sarietako baten bat jaso ez badu;
kasu horretan, edo lehen sektoreari
lotutako proiekturik aurkezten ez bada,
zenbateko hori hirugarren sari gisa
emango da.

Epea **2019-10-31** (14:00)



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

INFORMAZIO GEHIAGO
94 631 17 17
www.arratia.eus